# ARABAKO
# BERTSO SORTA KOLEKTIBOEN
## lehenengo
# LEHIAKETA 2010

**Otsaila-Maiatza**

**“Bertso berriak Arabari jarriak”**




**Eman izena Urtarrilaren 25a baino lehen!**

**ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA**
**Benito Perez Galdos plaza z/g**
**01002 GASTEIZ**
**Tel: 945 010505 - 688616531**
**e-posta: araba@bertsozale.com**

Arabako
Bertsozale
Elkartea

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

www.alava.net

# OINARRIAK

**PARTEHARTZAILEAK:** Arabako gazte eta helduen taldeak, 15 urtetik gorako kideek osatuak.
**TALDEEN OSAKETA:** Gutxienez 4 eta gehienez 15 laguneko taldeak osatu ahalko dira.
2010eko Arabako kuadrilla arteko txapelketan bat-batean kantatzen ez duten pertsonekin osatu beharko dira taldeak.
**LANA:** Sorta bakoitzak 3 bertso izango ditu gutxienez eta 5 gehienez.
**SORTAK:** Talde bakoitzak sorta bakarra aurkeztu ahal izango du.

# LEHIAKETAREN EGITURA

Lehiaketa honek 2010ean antolatuko den ARABAKO KUADRILARTEKO BERTSO TXAPELKETAREKIN bat egingo du egituran eta denboran.

**Sailkapen fasea:**

**Urtarrilaren 25a baino lehen** eman beharko da izena, ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEAN (tel: 945010505 – e-postaz: araba@bertsozale.com). Izena emateko taldearen izena, herria eta kontaktu bat nahikoa izango dira.

**Otsailaren 6 baino lehen** aurkeztuko dira fase honetarako bertso-sortak paperean, eta epaimahaiak Otsailaren 12rako jakinaraziko du eskualde bakoitzetik zein talde sailkatuko diren kanporaketetara.

**KANPORAKETAK** Otsailaren 19an hasi eta Martxoaren 27an amaituko dira.

**1**_ Sailkatutako taldeek eskualde mailako bertso-ligan kantatu beharko dituzte bertso-sortak. Fase honetan, bat-bateko txapelketarekin bat egingo du bertso-sorten lehiaketak.

**2**_ Sailkatzen diren taldeei telefonoz jakinaraziko zaie zein duten prestatutako sorta kantatzeko lekua eta eguna

**FINALERDIAK:** Apirilaren 11, 18 eta 25ean izango dira

**FINALA:** Maiatzen 8an izango da Gasteizen, AUZOLAN frontoian. .

# GAIAK:

**1**_ Kanporaketetako gaia “Norbere herria” izango da.
**2**_ Finalerdietara sailkatzen diren taldeentzat “eskualdea”.
**3**_ Finalistentzat gaia “Araba” izango da

## SARIAK:

**1**_ Kanporaketetako sailkatuek: Txapelketako kamiseta eta liburu lotea.
**2**_ Finalerdietako sailkatuek: Arabako produktuen saskia
**3**_ Finalistek: Oroigarria eta finaleko bazkaria.

## EPEA:

Lehiaketan parte hartzeko lanak Otsailaren 6a baino lehen aurkeztu beharko dira.

## NOLA BIDALI?

**1**_ Posta arruntez bidaltzeko jatorrizko sorta eta bi kopia gutun-azal itxi batean, kanpoaldean taldearen izena jarrita. Barruan, beste zorro txikiagoan, taldea osatzen duten kideen izen-abizenak, helbidea eta telefonoa.

**2**_ Posta elektronikoz bidaltzeko bi dokumentu doc formatuan (Word) taldearen izengoitiarekin. Batean bertsoak eta bestean egileen izen-abizenak, helbidea eta telefonoak. Epaimahaia antolatzaileak izendatuko du, eta bere erabakia aldaezina izango da.

## OHARRAK

Bertsoak jatorrizkoak, saritu edota argitaratu gabeak izan beharko dira.
Saritutako lanen jabetza antolatzailearen esku geratuko da, argitaratzeko eskubide osoa izango duelarik.
Taldeak fase bakoitzera aurkeztutako bertsoak jendaurrean kantatu beharko ditu.
Musikaz lagunduta kantatzea hobetsiko da.

**Harremanetarako nahiz lanak bidaltzeko:**

**ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA**
Benito Pérez Galdós plaza z/g
01002 GASTEIZ
Tel: 945 010505 – 688616531
e-posta: araba@bertsozale.com

**Antolatzailea:**
ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA

**Laguntzaileak:**
ARABAKO FORU ALDUNDIA – Euskara Zerbitzua

# BADATOR...




## Arabako kuadrilla arteko
### lehenengo
# BERTSO TXAPELKETA 2010

